

## DOMUND 2011

### “Honan bialtzen zaituet” (Jn 20, 21)

1. Urtero misinoen munduko domekea (Domund) ospatzeak gure kristinau nortasunaren eta misinoaren sena suspertzen deusku. Emon deioguzan eskerrak Jaungoikoari fedearen doea kristinau alkartearen barruan be jaso gendualako, barri ona iragarri euskuen, Jaunaren arpegia erakutsi euskuen eta bizitzako sakramentuetan sartu ginduezan persona hareekaz, gure gurasoakaz, katekistakaz, abadeakaz, familiagaz, parrokiagaz, eskolagaz, lagunakaz... Gure zorioneko bateo egunean, Jesusen ikasle eta misiolari bihurtu ginan.

2. Gure bizitzetan izotzen dan eta, era misteriotsuan, gure bizitzak aldatzen dituan fedearen zuzi hori oraindik Jauna ezagutzen ez daben eta, bihotzaren sakontasunetik, askotan jakin be egin barik, norbaitek Beragana noiz eroango zain dagoan hainbeste eta hainbeste lagunengana eroan behar dogu. Jauna da bizitzako galderarik sakonenen erantzuna. Kristinau izateaz batera, bialduak gara: “Aitak bialdu ninduan ez bialtzen zaituet neuk be” (Jn 20, 21). Aitak Espiritu Santuagan bialdu daua dino Jesusek berak be. Espiritu Santuak gantzutu dau (horixe adierazoten dau Kristo berbeak) eta bihotz nahigabetuak osatzera, giltzapetuak askatzera, itsuei ikusmena emotera eta Jaunaren errukizko urtea iragartera bialdu dau (ik. Lk 4, 14-22; Is 61, 1-11). Espiritu beraz gantzutu ginduezan gure bateo egunean eta, ondorioz, Jesusen egitekoan parte hartzeko bialduak izan ginan. Ez dago Jaunak Kristoren irudiko gizadi barriaren eraikitzaile izatera bialtzea baino misino pozgarri eta liluragarriagorik. Bere izenean goaz, gure ezaugarri eta indarretan ez ezik bere Berban eta bialketan uste osoa jarrita. Eta horrek ilusinoz eta bakez beteten gaitu.

3. Misinoa eginkizun pozgarria da. Jaunak bakeaz bedeinkatzen dau. Berbiztu lez egiten dauan agurrean horixe jakinarazoten deutse apostoluei: “Bakea zuei. Aitak bialdu ninduan ez bialtzen zaituet neuk be”. Eta bialketa horrek bakea kentzen deuskuen eta inora ez garoezan gauzak ahaztu eta geure baitatik urtetera behartzen gaitu. Bialduak izateak adoz eta itxaropenez betetako berbearen zain dagoan hainbeste lagunei begiratzera garoaz. Eta ez dago gizon egin dan Berbea baino berba handiagorik: Emmanuel, Jaungoikoa gugaz, gure haragia hartu dauan eta zeru-muga barria, Aitaren borondatearen arabera, gizadi barria, Jainkoaren Erreinua gure artean, eraikitzeko aukerea emoten deuskun Jesukristo Jaungoikoaren Semea. Eta gu, Berba horren eroale bihurtu gara.

4. Ez dago denporarik galtzeko. “Hona hemen ni; neu bialdu naizu” (Is 6, 8), izan zan Isaiasen erantzun eskuzabala. Uda honetan ospatu dogu Gazteen Munduko Jardunaldia. Era guztietako hesi eta muga gaindituz, banaketa eta desbardintasun bako mundu barria egin daitekela erakusten deuskun hainbeste gazte. Gaztaroa bereizketarako, erantzun oparo eta ausartetarako, abentura eta egitasmo adoretzu eta eskuzabaletarako sasoi erabagigarria da. Esan daigun geuk be: “hona hemen ni; neu bialdu naizu”. Gure espirituak, edozein adinetan, gazte irauten dau zeru-mugak zanpatzen ez badoguz eta konformismoari, geldotasunari, ohikeriari aurre egiten badeutsagu. Eroan deiegun gure gazteei Jesusen deia: “honan bialtzen zaituet”. Honan bizirik iraungo dau eurengan itxaropen guztiak gainditzen dituan egitekora bultzatzen dauan gaztetasunaren garra. Lagundu daigun gazteengan misinoaganako grina bizten: behartsuenen alde eskainitako bizimodua, Jesus eta bere Barri Ona oraindik ezagutzen ez daben makina bat leku, inguru eta girotara eroatea... Barritu daigun geuk be gure eskaintza eta gure misiolari sen eta konpromisoa Jaunaren berbea barriro jasotean: “neuk bialtzen zaituet”, ez izan bildur.

5. Gure kristinau bizitzaren misiolari alderdia beti esna eta prest egon daitela, une eta leku guztietan gure itxaropenaren barri emoteko. Biziagotu daigun gure etenbako otoitza eta sakrifizioa misinoan jarduten daben gure anai eta arriben alde, dana itzita, orean legamia, itxaropenaren eta poztasunaren zerbitzari, Jaunaren lekuko izateko urruneko herrietako biztanle bihurtu diran abade, lekaide, lekaime eta laikoen alde. Egin daigun otoitz fedearen garra biztu dan herrien alde eta oraindik Ebanjelioaren poztasuna jaso ez dabenen alde. Alkarbanatu daiguzan gure ondasunak Jaunaren argiak munduan zehar argi egin daian euren bizia emoten daben fedearen testigu miresgarri honeei eusteko. Bizi gaitezana santutasun eta graziazko, maitasun, zuzentasun eta bakezko Erreinua dan zibilizazio barriaren testigu eta egile izatearen itxaropen eta pozean. Bere bitartekotzaz, Elizak misiolari bultzada barri eta bizia izan daiala eskatzen deusagu Maria misinoen Erreginari.

+ Mario Izeta Gabikagoxeaskoa  
Bilboko Gotzaina

## **DOMUND 2011**

### **“Así os envió Yo” (Jn 20, 21)**

1. La celebración, cada año, del domingo mundial de las misiones (Domund), aviva en nosotros la conciencia de nuestra identidad cristiana y de nuestra misión. Demos gracias a Dios porque también recibimos el don de la fe en el seno de una comunidad cristiana, con aquellas personas, nuestros padres, catequistas, sacerdotes, familia, parroquia, escuela, amigos... que nos anunciaron la buena noticia, nos mostraron el rostro del Señor y nos sumergieron en los sacramentos de la vida. En el dichoso día de nuestro bautismo nos convertimos en discípulos y misioneros de Jesús.

2. Esa antorcha de la fe que prende en nuestras vidas y misteriosamente la va transformando, debe ser comunicada a tantas personas que aún no conocen al Señor y que, desde la profundidad del corazón, incluso muchas veces sin saberlo, esperan a que alguien les lleve hasta Él. El Señor es la respuesta a los interrogantes más profundos de la vida. Ser cristiano conlleva la inherente dimensión de ser enviado. “Como el Padre me ha enviado, así os envió Yo” (Jn 20, 21). También Jesús se manifiesta como enviado del Padre en el Espíritu Santo. Él es el Ungido por el Espíritu (eso significa Cristo) y enviado a sanar los corazones afligidos, a liberar a los cautivos, devolver la vista a los ciegos, proclamar el año de gracia (cfr. Lc 4, 14-22; Is 61, 1-11). Nosotros fuimos ungidos en ese mismo Espíritu el día de nuestro bautismo y, por tanto, enviados a participar en la misma tarea de Jesús. No hay misión más gozosa y apasionante que ser enviado por el Señor a algo tan hermoso como ser constructores de una humanidad nueva a imagen de Cristo. Vamos en su nombre, confiados en su Palabra y envió, no en nuestras cualidades y fuerzas. Y eso nos llena de ilusión y de paz.

3. La misión es una tarea gozosa. El Señor la bendice con la paz. En su saludo como Resucitado, así lo hace saber a los apóstoles: “Paz a vosotros, como el Padre me ha enviado, así os envió Yo”. El ser enviados nos obliga a salir de nosotros mismos, tantas veces preocupados en asuntos que nos quitan la paz y que no nos conducen a ninguna parte. El ser enviados nos hace volver nuestra mirada hacia tantas personas que están aguardando una palabra de aliento y esperanza. Y no hay palabra más grande que la Palabra que se ha hecho carne, el Emmanuel, Dios con nosotros, Jesucristo, hijo de Dios que ha tomado nuestra carne y nos abre el horizonte y la posibilidad de una humanidad nueva según el corazón del Padre, el Reino de Dios en

medio de nosotros. Y nosotros hemos sido constituidos en portadores de esa Palabra.

4. No hay tiempo que perder. “Aquí estoy, envíame” (Is 6, 8), fue la respuesta generosa de Isaías. Hemos celebrado este verano la Jornada Mundial de la Juventud. Tantos jóvenes que, superando todo tipo de barreras y fronteras, nos muestran que un mundo nuevo es posible, donde toda división o segregación quede superada. La juventud es un tiempo decisivo de discernimiento, de respuestas generosas y audaces, de aventuras y proyectos intrépidos y magnánimos. Digamos también nosotros: “Aquí estoy, envíame”. Nuestro espíritu, a cualquier edad, permanece joven en la medida en que no achatamos horizontes y nos rebelamos contra el conformismo, la apatía, la rutina. Llevemos a nuestros jóvenes esta invitación de Jesús “Así os envío Yo” que mantendrá en ellos esa llama generosa de un espíritu joven que se entrega a una tarea que desborda cualquier expectativa. Colaboremos a prender en ellos la pasión por la misión, el vislumbrar una vida dedicada a los demás, a llevar a Jesús y su Buena Nueva, a tantos lugares, latitudes y ambientes donde aún no lo conocen. Renovemos también nosotros nuestra entrega y nuestro espíritu y compromiso misioneros al recibir de nuevo la palabra del Señor: “Yo os envío”, no tengáis miedo.

5. Que la dimensión misionera de nuestra vida cristiana esté siempre despierta y pronta para dar razón de nuestra esperanza en todo momento y lugar. Intensifiquemos nuestra oración permanente y nuestro sacrificio por tantos hermanos y hermanas nuestros que trabajan en la misión; sacerdotes, religiosos y religiosas, seculares que, dejándolo todo, se han hecho uno más entre los moradores de pueblos lejanos, para ser levadura en la masa, servidores de esperanza y alegría, testigos del Señor. Oremos por aquellos pueblos en los que va prendiendo la llama de la fe y por los que aún no han recibido la alegría del Evangelio. Compartamos nuestros bienes para sostener a estos admirables testigos de la fe, que desgastan su vida para que alumbre la luz del Señor hasta los confines del mundo. Vivamos en la esperanza y la alegría de ser testigos y constructores de una nueva civilización que es Reino de santidad y gracia, de amor, justicia y paz. Invocamos a María, Reina de las misiones, para que por su intercesión, la Iglesia experimente un nuevo y vigoroso impulso misionero.

+ Mario Iceta Gabicagogeascoa  
Obispo de Bilbao